

ARAMAIXO GAZTE UDA!!!

Aurten Txirritola Euskara Elkarteak, Musikaetxea eta Sormeneko lagunek, udalaren laguntzarekin, GAZTE UDAko egitaraua prestatu dugu ilusio handiz. Gure asmoa herriko nerabeekin, aisialdiaz gozatzea da, horren bitartez herriarekiko, euskararekiko... atxikimendua indartuko delakoan. Aisialdi hezitzailearen bidez elkarbizitzaren oinarri osasuntsuak eraiki daitezkeela uste dugu. Bizitzaren esparru ezinbestekoa da aisialdia eta gozamenetik, harremanak indartzea ahalbidetzen du.

Aurtengo proposamena honakoa da:

MUSIKA ETA ARTEA

Uztailak 10etik 15era

Musika etxeko eta Sormen Tailerreko lagunek bideratuta

(Pello Heriz, Mikel Arriaran, Beñat Zalakain eta Eburne Koratabarria)

Tailer honetan gaztetxoek Pello Heriz eta Mikel Arriaranen laguntzarekin sortuko dute abestia eta Beñat Zalakain eta Eburne Kortabarriarekin serigrafiaren teknika ezagutuko dute lehenengo zirriborrotik azken emaitza arte.

Lehenengo hiru egunetan, Aramaiori buruzko abesti bat sortu, grabatu eta ahal den neurrian editatuko dugu. Helburua, gazteek talde lanean sormen prozesu batetik abiatutako proiektu bat burutzea izango da.

Bestetik, musikaren munduan kartelgintzak eta merchandising-ak pisu handia hartzen dute. Hori dela eta, azken bi egunetan, aurretik egindako abestiaren irudia sortu eta euskarri desberdinetara eramaten ikasiko dute gazteek serigrafia teknikaren bitartez. Teknika honen prozesua hasieratik amaierara jarriko dugu praktikan: lehenengo zirriborrotik diseinuak nola ateratzen diren ikasiko dute baita pantailak montatzen, materialaren erabilerarekin esperimendatzen ere.

NATURA ETA LAGUNARTEA

Uztailak 6, 18-22 eta 26

Tximista Aisialdi Taldeko hezitzaileak bideratuta

(Danel Herrarte, Leire Arrizabalaga, Alaitz Isazelaia eta Izaro Diaz de Gereñu)

Uztailak 6an egun osoko txangoa Zarautzera. Lineako autobusean joango gara eta MUGI txartela eramatea komeni da.

- **Uztailak 18-19-20ko arratsaldeetan ekintzak Aramaixon.** Masterchef, gynkana, parrillada...
- **Uztailak 21-22, Albinara txangoa eta bertan akanpada.**
- **Uztailak 26, hondartzara txangoa.** Lineako autobusean joango gara eta MUGI txartela eramatea komeni da.

(Nerabeekin bileratxo bat egingo dugu ekintzak haiekin batera adosteko)

“Musika eta artea”n izena emanez gero **40 euro** ordaindu beharko dira eta “Natura eta lagunartea” ekintzetan izena emanez gero ere **40 euro** ordaindu beharko dira nerabeen udaletxean. **Txangoetara soilik** joateko aukera ere badago, kasu horretan **10 euro** ordaindu beharko dira txango eta nerabeen.

Ekintzak burutu ahal izateko hainbat baimen eskatzen dizkizuegu jarraian, hauen deskribapen laburrekin batera:

• KOTXE PARTIKULARREAN GARRAIATUA IZATEKO BAIMENA

Tximista aisialdi taldeko hezitzaileak, nire seme-alaba beraien kotxe pribatuan garraiatzera baimentzen ditut, edozein erantzunkizunetatik salbuetsiz. Garraio mota hau larrialdi kasuetan (osasun zerbitzuetara eramateko) bakarrik erabiliko da eta gurasoei deituko zaie aurretik.

• IRUDI BAIMENA

Hezitzaileei baimena ematen diet Gazte Udaren baitan, nire seme/alabari argazkiak egiteko eta udaleko webgunean edota antolatzaileen sareetan argitaratzeko.

• TXANGOETARAKO BAIMENA

Uztailaren 6an eta 26an Aramaiotik abiatu eta egun guztia hondartzan igaroko dugu. Egun guztia bertan pasatuko dugunez, gazteek etxetik ekarri beharko dute bazkaria.

DATA: Uztailak 6 eta 26

IRTEERA ORDUA: 9:00ak Aramaioko autobus geltokian

ITZULERA ORDUA: 19.00 aldera Aramaioko autobus geltokian

IRTEERARA ERAMAN BEHARREKOAK:

- Motxila txiki bai
- Diru pixka bat (5€)
- Kantinplora
- Eguzkitako krema eta bisera
- Bainu jantzia
- Aldatzeko arropa
- Eguraldi euritsua eginez gero, zira edo aterki txiki bat
- **MUGI TXARTELA (edukiz gero)**
- Bazkaria, hamaiketakoa eta merienda

• ALBINAKO AKANPADARAKO BAIMENA

Uztailaren 21an, ostirala, Aramaiotik abiatuta, Albinako urtegiara oinez joango gara. Bazkal ostean irten eta gaua bertan pasatuko dugunez, gaztetxoek etxetik ekarri beharko dute afaria.

DATA: uztailak 21 eta 22

IRTEERA ORDUA: 15:30 udaletxe azpian.

ITZULERA ORDUA: zehazteke (bazkal orduan)

IRTEERARA ERAMAN BEHARREKOAK:

- Motxila txiki bai
- Kantinplora
- Eguzkitako krema eta bisera
- Oinetako eta arropa erosoak
- Aldatzeko arropa
- Lo-zakua eta esterila
- Afaria
- Bainu jantzia eta toaila
- Txankletak
- Hotzetik babestuko gaituen arropa
- Eguraldi euritsua eginez gero, zira edo aterki txiki bat
- Frontala edo linterna

(Markatu X batekin ados bazaude)

Nik.....(guraso/tutoreak) nire seme-
alaba den.....ri, antolatutako Gazte
Udako honako baimenak ematen ditut:

- Kotxe partikularrean garraiatua izateko baimena.
- Irudi baimena.
- Irteera baimena
- Akanpada baimena

Guraso edo tutore legalaren NAN, sinadura eta kontakturako telefonoa:

(Markatu X batekin ados bazaude)

Nik.....(guraso/tutoreak) nire seme-
alaba den.....ri, antolatutako Gazte
Udako honako baimenak ematen ditut:

- Kotxe partikularrean garraiatua izateko baimena.
- Irudi baimena.
- Irteera baimena
- Akanpada baimena

Guraso edo tutore legalaren NAN, sinadura eta kontakturako telefonoa:

(Markatu X batekin ados bazaude)

Nik.....(guraso/tutoreak) nire seme-
alaba den.....ri, antolatutako Gazte
Udako honako baimenak ematen ditut:

- Kotxe partikularrean garraiatua izateko baimena.
- Irudi baimena.
- Irteera baimena
- Akanpada baimena

Guraso edo tutore legalaren NAN, sinadura eta kontakturako telefonoa: